

Kultur ondarearen
eta genero-
ikuspegiaren
Liburu Zuria

WOMEN'S LEGACY



Kultur ondarearen eta genero- ikuspegiaren Liburu Zuria



Sustatzailea:

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Koordinatzaileak:

Amaia Apraiz Sahagún
Ainara Martínez Matía

Kolaboratzaileak:

Emmanuelle Cordoliani
Liliane I. Cuesta Davignon
Aintzane Eguilior Mancisidor
Sonia Francisco Martín
Caterina Franchini
Emilia Garda
Sarah Holloway
Giuliana di Mari
Mateja Račevski
Alessandra Renzulli
M.^a José Torrecilla Gorbea



Sarrera

pag. 08

Liburu zuria idazteko arrazoiak

pag. 10

Metodologia orokorra

pag. 16

6

Terminoen definizioa

pag. 24

Aurrez aztertu beharreko arazoak

pag. 31

Ohiko jarreak (eta zuzengarriak)

pag. 46

Ardatz estrategikoak

pag. 50

Ondorioa

pag. 56

Eranskina:

Jardunbide egokien zenbait adibide

pag. 60

Erreferentziazko argitalpenak

pag. 78

7



Sarrera

8

Azken bost urteotan, Europa osoan gero eta interes handiagoa dago generoaren eta kultur ondarearen arteko elkarreraginarekiko. Kultur programek –hala nola *Ondarearen Europako Jardunaldiak*, Europako Kontseiluak Europar Batasunaren laguntzarekin koordinatzen dituenak–, maizago jorratzen dute emakumeek kultur emariak, materialak nahiz immaterialak, sortu, zaindu eta transmititzeko izan duten zeregina. Izan ere, joera horrekin bat etortzeko, *Women's Legacy* sarea sortu dugu: Bizkaiko Foru Aldundiak zuzentzen du proiektua, eta horren helburua da sare hori Europa mailako plataforma izatea, gure kultur ondarea interpretatzeko genero-ikuspegia txerta dadin. Programa horren ekin-tza nagusienetako bat, Bizkaiko 2018ko *Ondarearen Europako Jardunaldien* esperientzia oinarri hartuta, *liburu zuri* hau idaztea izan da, kultur ondarearen kudeaketan diharduten profesionalei lagungarri izan dakien.

Kultur politikak hasi dira nabarmentzen gizon-emakumeok kultur ondarearekin ditugun harremanak xehetasunez aztertu behar direla; izan ere, kultur ondarea ez da beti berdina, ezta bateratua ere, sentsibilitate desberdinak barne hartzen ditu eta horien artean generoak berebiziko garrantzia du.

Kultur ondareen ikuspegi androzentriko tradizionala gainditzea xede duen ikuspegi berri bat zabaltzen ari da. Alabaina, kultur ondarea genero-ikuspegitik interpretatzeko kontrakotasun asko daude oraindik, eta haren aplikazioan beste gabezia eta zailtasun batzuk agertzen dira.

Liburu Zuriak, Europako bost herrialdeetako eta eskualdeetako esperientzietan oinarrituz, kultur ondarearen ikerketan, ebaluazioan eta hedapenean egiten diren ohiko akatsak aztertu eta lau eremu hauetan jardutea proposatzen du:

9

Ikerketa, prestakuntza, hezkuntza eta interpretazioa.

01

Liburu Zuria idazteko arrazoiak

Liburu Zuriak hainbat hausnarketa bildu eta informazio-iturria izatea du xede kultur ondarearen eremuan ikuspegi integratzaile batetik jarduteko, hau da, gizon-emakumeek kultur ondare komunari egindako ekarpenak barne hartuta.

Alabaina, lanbide-jarduerak erakutsi du oraindik asko falta dela XX. mendearen zati gehienez nagusitu den «ondare historiko-artistikoa» kontzeptu tradizionalaren ordeztu beste kontzeptu integratzaile bat, hots, «kultur ondarea», ezartzeko. Pasa den mendearen erdialdeko kultur ikerketetan mendebaldean zentratutako legitimazio elitista (zehatzago esateko, eurozentrismo) zailtasun jartzen hasi zen. Hala, kontzeptu berria sortu zen. Gaur egun, kontzeptu horren definizioaren barruan kokatzen gara eta hainbat identitate barne hartzen ditu: indigenak eta zuriak ez direnak, landatarrak, langile-klasea, duela gutxi independizatuak edo estaturik gabeko nazioak... Bilakaera horri esker, kultur ondareari buruzko katalogo eta inbentarioetan ondare etnografikoak, industrialak eta immaterialak sartzen hasi ziren eta, hein handi batean, kultur erreferentzetan ditugun ondareak berak ulertzeko modua goitik behera aldarazi digute.

Gure ikuspegia



“(...) begi batetik begirata, gure ikus-eremua mugatua da, sakontasunik gabekoa. Beste begitik begiratuta gero, ikus-eremua zabaltzen da, baina oraindik sakontasuna falta zaio. Bi begiak zabaltu behar ditugu ikus-eremu osoa eta sakontasunaren pertzepzio zehatza izateko”.

—GERDA LERNER,
La creación del patriarcado, 1986

Edonola ere, badirudi kontzeptu hori genero-ikuspegia aintzat hartu gabe eguneratu dela eta, azken finean, emakumeak saihesten eta ikusezin bihurtzen dituen ikuspegia iraunarazi duela. Horregatik, bi ikuspegiak bateratu eta kultur ondarean genero-ikuspegia barne hartzeko agiri estrategikoa idatzi behar da; osterantzean, gaia ez da bere osotasunean eta beharrezko sarkontasunarekin landuko.

Hona hemen liburu zuri hau ezinbesteko egiten duten arrazoiak:

a

Gaur arte, ondarea ikuspegi **androzentrikotik ikertu da soilik**

1. Onartutako ondarea ulertzeko modua aldatu behar da.
2. **Zehaztasun zientifikoko** kontua da: gizon-emakumeen % 50ak eta beste erdiak egindako ekarpenek ikusgaitasun berdina eduki behar dute.

b

Emakumeek Europako kultur ondareari **egindako ekarpenak** ezagutzera eman behar dira

1. Garaiak aldatu egin dira eta premiazkoa da emakumeek gehiago parte har dezatela gizarteko eremu guztietan.

c

Emakumeek historian utzitako **hutsuneak betetzeko** jarrera aktiboak sustatu behar ditugu

1. Edukia sartzeaz gainera, **esparrua aldatu behar** dugu.
2. Azaleko neurriak ez dira aski.


d

Ziurtatu behar dugu oraingo ahaleginak **argia ikusiko duela etorkizunean**

1. Ez gara ekintza iragankorretara edo urtemugetan oinarritutako ekitaldietara mugatu behar.
2. Genero-ikuspegia **Europako kultur politketan** txertatzen lagundu nahi dugu.




Voyager espazio-zunden urrezko diskoa



“1977an, Voyager izeneko espazio-zundak bidali zituzten espaziora. Haietako bakoitzak urrezko disko bat darama, Lurreko eszena eta soinuekin eta musika-konposizioekin, noizbait zibilizazio estralurtarrekin kontaktuan jartzen badira ere. **Egile guztietatik emakume bakarra dago**, Laurie Spiegel konpositore elektronikoa, hain zuzen.

Demagun hemendik 40.000 urtera emakumezkoek Lurreko kulturari egindako ekarpenak baliotsi behar dituztela. Informazio horren arabera, oso ekarpen urria da, **nekez iristen da % 3-ra**.




 **Ulertu al duzu zergatik den beharrezkoa Liburu Zuria?**

Metodologia orokorra

Liburu Zuria emakumezkoek gure kultur ondareari egindako ekarpenak ezagutzera emateko estrategia-multzoa da. Hain zuzen, ondarea genero-ikuspegiarekin interpretatu eta berdintasuna lortzen laguntzeko tresna berriak sortzeko oinarriak ezarri ditugu.

Metodo hau erabili dugu:



Antolamendu-eredua


Liburu Zuria Europa mailan egindako lan bat da eta kultur ondarea genero-ikuspegitik eraginkortasunez interpretatzeko jarduerak biltzen ditu. Europako bost herrialdeko eta eskualdeko esperientzietan oinarrituz, hausnarketarako gunea sortzea du xede, ezagupen berriak bateratu eta arlo askotako agenteen inplikazioarekin maila desberdinetan aplikatzeko.

Hain zuzen ere, aztertutako esperientzietan kasuistika desberdina dela ikusita, errealitatea zehatzetara egokitzeko antolamendu-eredu malgua planteatu behar izan da. Aztertutako kasu bakoitzaren izaerak eta norainokoak eragina dute, baina baita inguruko zirkunstantzietan eta horiek sortu eta bultzatu dituzten agenteen arteko desberdintasunek ere. Bizkaian sustatu da proiektua, *Emakumeen Emaria* (2018ko Ondarearen Europako Jardunaldiak) **esparru-esperientzia** abiapuntutzat hartuta.

Lurraldea	Agentea	Esperientzia	Esparrua	Arduraduna
Bizkaia	Bizkaiko Foru Aldundia	Emakumeen emaria–Herencia de mujer	Ondarearen Europako Jardunaldiak, 2018	Aintzane Eguiñor Mancisidor
Eslovenia	Arboretum Volčji Potok	Marija Auersperg Attems Project	Europako Kultur Ondarearen Urtea, 2018	Mateja Račevski
Ile-de-France	Association HF Île-de-France Heritage Open Days	Journées du Matrimoine	Ondarearen Europako Jardunaldiak, 2015-2020	Emmanuelle Cordoliani
Ingalaterra	Heritage Open Days	Extraordinary Women	Ondarearen Europako Jardunaldiak, 2018	Sarah Holloway
Valentzia	González Martí Zeramika eta Luxuzko Arteen Museo Nazionala	Relecturas	Work In Progress	Liliane I. Cuesta Davignon
Bizkaia	La Encartada Fabrika Museoa	Emakumeak eta genero-berdintasuna. Museotik hezi	Museoaren ohiko programazioa	M.ª José Torrecilla Gorbea
Italia	Politecnico di Torino-POLITO	MoMoWo– Women’s Creativity since the Modern Movement	Work In Progress	Caterina Franchini Emilia Garda Giuliana di Mari Alessandra Renzulli
Euskadi	WikiEmakumeok	WikiProyecto Mujeres	Work In Progress	Sonia Francisco

Esperientzia horiek **gidaritza-taldea** osatu dute, eta gaiarekiko interesa duten beste pertsona eta ekimen batzuk gehitu zaizkio. Beraz, kasuistika izugarri handia da, eta lan-eremuak helburuetan bat badatoz ere, geografikoki aldentuta daude. Horrez gain, antolamendu-ereduan urruneko lana nagusitu da, 2020ko martxoeko pandemiaren eraginez.

Hala, agenteak **hiru lantaldeetan** banatu dira:



Kanpo-aholkularitzak

Horrez gain, **kanpo-aholkularitza** jaso da. Hain zuzen, diagnostikoa egiten lagundu dute eta ikerketa-kasuei buruzko ezagupenak ahalbidetu dituzte, Liburu Zuriaren idazketa-fasean sartzeko. Idazle-taldea ospe handiko emakume-talde batekin jarri zen harremanetan; batzuk kultur ondarearen eremukoak ziren eta besteak zientzia, antropologia, arte-kreazio eta beste jakintza-arlo batzuetakoak.

Kanpo-aholkularitzak ikuspegi zabalagoa edukitzea, lehentasunak hobeto zehaztea eta hurrengo faseetan landu beharreko ardatz estrategikoak argi eta garbi ezartzea ahalbidetu du.

Ildo horretatik, funtsezkoa izan da Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen, UNESCO Etxearen eta Eusko Jaurlaritzako Kulturara Sailaren eta beste eremu batzuetako langileen kolaborazioa. Nahiz eta hasiera batean pertsona gehiagorekin harremanetan egon, **bederatzi emakumek osatu zuten lantaldea:**




Women's Legacy proiektuaren kanpo-aholkulariak

Izena	Instituzioa/Erakundea/Proiektua	Espezialitatea
Victoria Ateca Amestoy	EHU-UPV Ekonomia eta Enpresa fakultatea	Kultur politikak
Belen Bengoetxea Rementeria	EHU-UPV Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila	Arkeologia
Margaret L. Bullen	EHU-UPV Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	Antropologia feminista
Teresa Campos López	EHU-UPV Hezkuntza Fakultatea	Gizarte Zientzien didaktika
Susana Carramiñana García	EJ-GV Kultura Saila	Berdintasuneko teknikaria
María Castejón Leorza	Langile independentea	Kultur programazioa
Marta Macho Stadler	EHU-UPV Kultura Zientifikoko Katedra	Zientzia-dibulgazioa
Maidar Maraña Saavedra	UNESCO Etxea	Kultur eskubideak
Cristina Simó Espinosa	Ecomuseu de les Valls d'Àneu	Ondarearen interpretazioa

Eztabaidagaiak

Hiru gai-multzoren inguruan eztabaidatu da. Hain zuzen, ondarea genero-ikuspegitik interpretatzeko tokiko eta nazioarteko esperientziak aurkeztu dira.



Women Storytelling

Onartutakoaz gain ba al dago kultur ondarearen beste kontakizunik? Eta, batez ere, nola lor genezake narratiba integratzaile eta aberatsagoa? Ondarea genero-ikuspegitik nola komunikatu behar den aztertu dugu, eta, hain zuzen ere, aukera berriak begiztatu, emakumezkoen ekarpenak ondareari atxiki eta gure kultur ondarearen irakurketa konplexuagoa proposatu behar ditugu.

Emakume izenarekin

Gaur egungo (eta etorkizuneko) belaunaldiek inspiraziotzat daukate kultur ondarea. Horregatik, gizarte justuagoa eta berdinezaleagoa lortu nahi badugu, ezinbestekoa da inspiratzen gaituzten erreferente femeninoak, hau da, sortzaile edo mezenas moduan Europako kultur ondareari ekarpena egin eta bere garaian ospea lortu zuten emakumeak, berreskuratzea, eta haien ekarpenak aldarrikatzea.

Emakumeen memoriak

Halabeharrezkoa da emakumeen kultur ondarea ezagutzea. Baina baita komunikatzea eta zabaltzea ere, gizarte osoa jakinarren gainean jartzeko. Agente askok, eta, bereziki, herri-administrazioek, dute zeregin hori.

Terminoen definizioa

Liburu Zuria feminismoaren pentsamendu-korrontean, eta, hedaduraz, emakumeen ikerketak izeneko jakintza-alorraren barruan kokatzen da, eta horrek ezagutzaren korronte tradizionalerikiko jarrera kritikoagoa hartu eta gizarte justuagoa sustatzea du xede. Ildo horretatik, kultur ondareari ikuspegi berri batetik heldu behar zaio, eta, hain zuzen ere, sexuen arteko berdintasuna (gizarteak horrela eskatzen duelako) eta ondare ez-baztertzaileak sustatu behar ditu.

“Gizon unibertsalaren fenomeno ez da kasualitate hutsa: hizkuntza erromanikoen jatorrian ezarri ditu oinarriak, antzinako misoginiaren oinordeko diren mediterraneoko herrien amalgama, eta osorik irudikatu ditu erromatar herriaren hizkuntza eta kultura, non emakumeak gizonen ondasuntzat hartu eta hiritargoak eta politikak bazter uzten zituzten”

—M.^a ÁNGELES QUEROL, *Arqueología y género. Educando en igualdad. Madril: Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren argitalpenak, 2017*

Genero-ikerketaren korrante bati jarraikiz, muturreko bi jarre-
ra hauek ekidin behar dira: batetik, jada egonkortutako ikerketa-
-ildoetan emakumezkoak sartzeari soilik (ironikoki «emakumeak
gehitu eta astindu» esan zaiona), eta, bestetik, adanismoaren
tentazioa (ironikoki «evismo» deiturikoa) edo ordura arte aztertu-
tako guztiari entzungor egitea, kosta ahala kosta gainditu beha-
rreko logika bati erantzuten diola iritzi zaiolako. Izan ere, ikerketa
askok azpimarratu dute **arazoari irtenbidea emateko modua ez
dela historia berridaztea, jakintza-alor zientifiko bati dagokion
zehaztasunarekin idaztea baizik.**

Beraz, eta artearen historia eta giza adierazpenei lotutako
beste edozein jakintza-arlotan gertatzen den eran, ondarearen
neutraltasunik eza onartu behar da; izan ere, «emakumeei bu-
ruzko aurreiritziek» eragina izan dute ondarearen hautaketan
eta ebaluazioan, eta, mendez mendez, emakumeen interesak gi-
zonezkoen interesen pean jarri eta batzuen eta besteen «berez-
ko» gaitasunei buruzko sineste errotuek (baina ez zentzuzkoek)
egituratu dute hezkuntzara eta bizitza publikora sartzeari (CHAD-
WICK 1990: 8). Sineste horien ondorioz, emakumezkoak onartu-
tako diskurtsoetik kanpo geratu dira, subjektu-izaeraz gabetuak
izan dira eta ideia-sistemak ezartzean hutsaren parekoa izan da
haien esku-hartzea (LERNER 1986: 341). Horri dagokiola, eta hiz-
kuntza ez-sexistaren oinarriak (mugimendu feministaren ohiko
aldarrikapenetako bat) ezartzeko xederik ez badugu ere, **azpima-
rratu nahi dugu hizkuntza androzentrikoak edozein formulazio
teorikotatik kanpo utzi dituela emakumezkoak.**

Prozesua berrezartzeko, paradigma-aldaketa bat hasteko bes-
terik ez bada ere, ezagutzaren sistemetan indarririk izan ez duten
kontzeptu berriak definitu behar dira, eta emakumeen, generoa-

ren eta kultur ondarearen arteko harremanak aldatzen hasteko
sistema berria eraiki, beharrezkoak diren tresnez baliatuz. Alabai-
na, hitz berriak ez dira aski izango, gaia aztertzen diharduten gu-
txi batzuk baino erabiltzen ez badituzte. Aldi berean, litekeena da
komunikabideetan eta beste eremu batzuetan eguneroko hitzak
gehiegi erabiltzeak haien esanahia desitxuratzea eta, ondorioz,
gaizki-ulertzeak eragitea. Horregatik, Liburu Zuriaren atal nagu-
sietako bat da honakoa.

Kultur ondarea



—**Iraganetik** jasotako, **gaur egun** bizitako eta **etorkizuneko belaunaldiei** utziko diegun ondarea da.

—**Monumentuak eta objektu-bildumak ez ezik**, ahozko tradizioak, erabilera sozialak, erritualak, jai-ekitaldiak, ezagutzak eta praktikak, jakintzak eta teknikak ere biltzen ditu.

—**Kultur aniztasunaz gozatzeko** aukera ematen du eta **kohesio soziala** mantentzen laguntzen du.

28



Generoa

—Tradizio anglosaxoitik datorren hitz bat da, gizarteak sexu bakoitzari ematen dion **kultur definizioa** eta kategoria biologikoa bereizten dituen.

—**Eraikuntza sozial** bat da, eta, beraz, gizarte eta une zehatz batean kokatu behar da.

—Botere-harremanetan bereziki sexuen arteko desberdintasunak azaltzeko erabiltzen den **harreman-kategoria** da.



Sexua-generoa sistema

—Gizarte bakoitzak kulturalki ezarritako genero-rolen arabera egindako **baliabideen, ondasunen eta pribilegioen esleipen instituzionalizatua** da.

Patriarkatua

—**Gizonek emakumeekiko duten gusitasunaren adierazpen instituzionala**, familia-nukleotik gizarteko eremu guztietara zabaltzen dena.

—Ez ditu eskubide guztiak ukatzen, baina gizonezko izate hutsak ahalmena ematen die erakunde garrantzitsuetan agindu eta emakumeekiko **desberdintasun-harremanak** betikotzeko.

Sistema patriarkala

—**Desberdintasun estrukturaletan** oinarritutako sistema, **genero-arrazoiengatik gizonen nagusitasuna** instituzionalizatzen duena



29



Feminismoa

—Sexua-generoa sistemaren inguruko hausnarketak antolatzen dituen

pentsamendu-korrontea da.

—Emakumeen eta gizonen arteko

eskubide-berdintasunaren printzipioan oinarritzen da.

—Berdintasunaren alde borrokatzen duen **mugimendu antolatua da.**



Androzentrismoa

—**Gizonezkoen ikuspegitik** sortutako pentsamendu-korrontea da.

—Gizonezkoak dira erreferente bakarrak;

emakumeak subjektutzat hartzea

eragozten du eta sexuen arteko

elkarrekikotasun-harreman orokori uko egiten dio.

—**Gizonezkoen ikuspegia**

unibertsalizatzen du.

Aurrez aztertu beharreko arazoak

Kultur ondarea genero-ikuspegitik interpretatzea auzi berria ez ezik konplexua ere bada, eta, hainbatetan, abstraktua, egunerokoan oso ohikoak ez diren kontzeptuak ezagutu behar baitira. Horregatik, hitzak definitu eta erabilitako hizkuntza zehazteaz gainera, gure lan-esparruari dagozkion **xedapen legalak eta juridikoak** ezagutu behar ditugu. Halaber, alderdi horiek zehaztu eta gauzatzeko **kultur ondarearen ondasunak**, haiek **interpretatzen eta jakinarazten dituzten agenteak** eta **publiko** hartzaileak aztertu behar dira.


Kultur ondarearen ondasunak

Ondasun bat berez ez da ondarea; esangura hori izateko prozesu bat jarraitu behar du, eta, bertan, preziatua, baloratua, zaindua eta babestua izateko hainbat balio gehitzen zaizkio. Kultur ondarea orainaldian eta etorkizunean erabili eta gozatzeko antzinako elementuen hautaketa bat da. Hautaketa horretan oroimenak berebiziko garrantzia du, baina baita ahanzturak ere (SMITH, 2006). Modu horretan, presentziak bezain adierazgarriak dira gabeziak, gizarte batek tokiei, gertakariei, izenei eta beste elementu batzuei esanahi berria ematerakoan. Atal honetan genero-ikuspegi aplikatzea funtsezkoa izango da pertsona orok gure kulturari egindako ekarpenak ezagutzera emateko.


Ondarea ez da finkoa; milaka interpretazio izan ditzake eta, beraz, alderdi batzuk edo beste batzuk nabarmen dakizkioke. Hala-ber, kultur eta identitate-erreferentea da, gizarte batek oinarritat hartu eta transmititu nahi dituen balioak irudikatzen dituelako. Gaur egun, ordea, elementu bateratzailea izan beharrean, marjinezioa eragiten du, eta, hein batean, giza talde batzuk beste batzuen mende egotea legitimatzen du.

Kultur ondare edo adierazpen batzuk zaindu eta beste batzuk ahultzen uztea (edo, muturrera eramanda, desagerraraztea) ez da ekintza neutrala, elementu bat ondaretu edo ez erabakitzeko prozesu historiko eta sozialen adierazgarria eta emaitza baizik.

Emakumeak prozesutik kanpo uzteak adierazten du ez direla kultur ondarea mantentzeko eta balioan jartzeko aukera guztiak balioetsi; alabaina, joera hori aldatzen has daiteke, kultur sistemen eraldaketa bultzatzen bada ere. Prozesu horretan ikuspegi berriak sartu behar dira, noski, baina garrantzitsuagoa izan daiteke kultur ondarean emakumearen rolari buruzko oinarri batzuk argudiorik gabe uztea:



**Kultur ondareak
beti hartzen
ditu kontuan
emakumeak?**



Zer egin behar dugu kultur ondareak emakumeak baztertzen dituenen?



Legezkoa al da emakumei kultur ondare (materiala edo immateriala) zehatz batera sarrera debekatzea?



Tradizioaren argudioa erabiltzea aski al da sexu-diskriminazioa betikotzeko?

Ondasun bat ondare bihur al daiteke, gizartearen parte bat baztertzen bada ere?



Zer gertatzen da kultur jarduera batek generodesberdintasuna bultzatzen duenean?



Nola heldu behar zaie genero-arazoei ospakizun, jaialdi, gizarte-ohitura eta beste ekitaldietan?



Posible al da kultur ondareari esanahi berria ematea desberdinkeria betikotu ordez aldaketa bultzatzeko?

Era berean, generorik gabeko ondarearen balioa nabarmendu eta zabaltzean sexuen arteko desberdintasuna betikotu egiten da, eta omisioek eta isiltasunek kultur ideologiaren nagusitasuna erakusten dute.

Emakumeak baztertu eta beste balio-sistema bat ezartzeko aukerarik ez emateak adierazten du ez direla kultur ondarearen aukera guztiak balioetsi.


Interpretazio berriek kultur ondareari balio handiagoa eman diote eta unibertsalagoa eta partizipatiboagoa izatea lortu dute. Emakumezkoen ekarpenekiko ikuspegi inklusiboa oraindik konpondu gabeko arazoa bada ere, onartutako ondare-diskurtsoak zalantzan jartzeko prozesuan murgilduta gaude, eta prozesua geldiezin da. Gainera, datozen urteetan kultur ondareen ikuskeraren androzentrikoa aldatuko da, seguru aski.

Ondarearen interpretazioan esku hartzen duten agenteak

Kultur ondarea genero-ikuspegitik interpretatzeko ezinbestekoa da haren zainketaz, ikerketaz eta hedapenez arduratzen diren agenteek esku hartzea. Ildo horretatik, 2019. eta 2020. urteetan Women's Legacy proiektuaren barruan hainbat galdeketa egin dira sektorearen egoera eta beharrak ezagutzeko. Ikerketak kudeaketa publikoko, pribatuko eta mistoko agenteak, kultur ondarearen arloko langileak eta irabazi-asmorik gabeko eta boluntariotzako elkarteak bildu ditu. Galdeketa horretatik azpimarratu behar da batzuek «**genero-ikuspegiaren**» kontzeptua **abstraktuegia ikusten dutela edo ez dakitela nola txertatu eguneroko jardueretan.**

Salbuespen gutxi batzuk kenduta, **erakunde publikoei** (udalak, turismo-bulegoak, museoak, kultur etxeak, ikastetxeak...) **dago-kie genero-ikuspegia barne hartzen duten jarduerak antolatzeara**, eta, aldiz, erakunde eta enpresa pribatuek askoz ere konpromiso txikiagoa dute.


Genero-gaietan prestakuntza jaso duten erakunde antolatzaileen %-koa (*)




(*) enpresa pribatuak eta ikastetxeak kanpo geratu dira, ez daudelako behar adina lagin.

Erakundeen % 69ak baietsi du 2018.a baino lehen emakumezkoen ekarpenak ezagutzera emateko kultur ondarearen hedapeneko eta interpretazioko jarduerak burutu dituela, eta agenteen % 30ak baino gehiagok aitortu du genero-ikuspegitik antolatzen dituela jarduera guztiak, edozein arlotakoak direla ere. Gainerakoan, gutxi dira (% 3) hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiltzera mugatzen direnak, eta, aldiz, % 67ak dio ildo horretatik jarduerak maiz (% 21ak) edo noizean behin (% 46ak) antolatzen dituela.

Aurretiko esperientzia



Genero-ikuspegiaren garrantzia



- % 2 — Interesgarritasun gutxikoa
- % 6 — Kontuan hartzekoa
- % 25 — Behar-beharrezkoa
- % 67 — Funtsezkoa

Azpimarratu behar da sektoreak orokorrean **jarrera positiboa** erakutsi duela. Izan ere, kultur ondarearekin lotutako jarduerak genero-ikuspegitik antolatzeak duen garrantziari buruz galde-tzean **gehiengoak** (% 92ak) **uste du funtsezkoa** (% 67) **edo oso beharrezkoa** (% 25) dela eta % 2ak bakarrik erakutsi du interes eskasa (hain zuzen, inork ez du esan gaiak garrantzirik ez duenik).

Galdeketa erantzun dutenen % 30ak baieztatu du bere kasa trebatu dela; hau da, kultur ondarearen interpretazioan dihardutenen ehuneko handi batek uste du genero-ikuspegia landu behar dela eta horregatik erabaki du bere kontura trebatzea.

Bestalde, sektorearen **prestakuntza-eskasia** aintzat hartu behar da. Erakunde gehienek (% 57ak) genero-gaietan trebakuntza jaso izana aitortu dute. Alabaina, prestakuntza horrek ez du **kultur ondarearekin lotura zuzenik**. Orokorrean, berdintasun-planekin edo administrazioetako sail zehatzekin (hirigintza, komunikazioa, etab.) zerikusia duten ikastaroak dira. Halaber, Bizkaian kultur ondarearen interpretazio-jarduerak antolatzen dituzten **% 40ak baino gehiagok** ez dauka genero-ikuspegiaren **trebakuntzarik** edo, behintzat, ez du sekula berriazko prestakuntzarik jaso.

Hartzaileak

Orokorrean, hartzaileak (ezaugarri pertsonalak gorabehera) joera dute bi ondare-mota bereizteko: eliteari dagokion monumentu-ondarea, ukigarria eta materiala, eta komunitateei dagokien ondare “txikia”, ukiezina eta immateriala. Bigarren multzoa tokikoa, artisau-izaerakoa, egunerokoa, enpirikoa eta ordezkagarritasun txikikoa da, eta, lehenbizikoa, aldiz, unibertsala, artistikoa, ezohikoa, intelektuala eta adierazgarria. Emakumezkoen ondarea bigarren kategorian sartzen da. **Generoarekiko aurreiritziak ditugulako**, hain zuzen ere.

Kultur ondareari buruzko diskurtso ofizial askok aparteko garrantzia ematen diote emakumeei. Hala, «emakumeak» (eta, ez, emakumeek, diskurtso horiek esentzialismoari erantzuten baitiote) funtsezko zeregin bat edukiko luke: «emakumea» da tradizioaren zaindaria, betikotu eta geroko generazioei jakinarazteko ardura duena. Abdelaziz Thaalbi politikari tunisiarrak ideia zahar bat aldarrikatu zuen XX. mende hasieran: «Emakumea da familieren zaindaria, gizartearen kontserbatzailea». Ideia horrek bizirik dirau 2021eko imajinario kolektiboan, XXI. mendearen hirugarren hamarkada hasita dagoenean. Alabaina, gizarte tradizionalek ez diete emakumeei ondare komunaren parte izatea merezi duten elementuak hautatzeko eta baloratzeko ahalmenik eman, eta, hain zuzen ere, sineste hori sustatzea ez da batere onuragarria kultur ondarea genero-ikuspegitik interpretatzeko.

Kulturaren eta identitatearen emakume zaindariaren irudiak onartutako ondare-diskurtsoari sakonki eragiten dio eta hartzaileek, kritikarik gabe askotan, bere egiten dute.

Horregatik, galdera hauek egin behar dira:

Zer esan nahi dugu “emakumeek Europako ondare komunera egindako ekarpenak” esaldiarekin?, eta “ondarea genero-ikuspegitik interpretatzea” esaldiarekin?

Kulturaren subjektu aktiboak al dira emakumeak (sortzaileak, artistak, egileak, mezenas...)?



Zer gertatzen da ondareak mezenasgo edo egiletza ezagunik ez duenean?

Ondare ezezagun horren zein parte dagokie emakumeei?

Kultur ondarearen hartzaile eta erabiltzaile al dira emakumeak?



Sortuta al dago kultur ondarea emakumeek hori erabil edo goza dezaten?

Lagun dezake kultur ondareak emakumeen historia hobeto ezagut dadin?

Kultur ondarearen transmitzaile eta zaintzaile al dira emakumeak?



Zeregin horrek lagundu al du emakumeak historiaren bigarren mailara baztertzen?

Nola irakur ditzakegu berriro ondare horiek emakumeen historia ulertzen benetan lagun diezaguten eta aldi berean berdintasuna eraikitzen lagun dezaten?

Premiazkoa da **emakumeek gehiago parte** har dezatela gizarteko eremu guztietan. Askotan, gainera, emakumeekin zerikusia duten ondareak ezkutatu eta gutxiesteari eta beste hainbat injustiziarri egin behar zaie aurre. Baina era askotako hartzaileak daude eta kezka eta interes desberdinak dituzte. Ondare horiei buruzko hausnarketak gizartearen parte bati bakarrik eragiten diola sinestea huts galanta da.

Ondarea genero-ikuspegitik interpretatzean **nork bere buruari galdetu behar dio zein den emakumeen rola** ondare komunaren eraikuntzan eta zergatik izan diren maiz baztertuak kultur ondareak aitortzerakoan.

Gure ikuspegia



“[Emakumea] historiatik ezabatu zen, eta, hori, lagun maitea, hilketa bat da, artearen kontrako hilketa, hain zuzen. Odolik gabe, hezurrik hautsi gabe, urteak eta urteak igaro behar dira horrelako hilketa ikaragarria gauzatzeko: Lágrimas de Eros”.

—SIRI HUSTVEDT,
Recuerdos del futuro, 2019.

Ohiko jarrerak (eta zuzengarriak)



Jarrera esentzialistak hartzea

- Emakumezkoen ikerketak **kategoria zehatz** batean sartzea.
- Emakume izate hutsagatik** berezko ezaugarriak dituztela pentsatzea.
- Emakumezkoak **objektu kolektibo homogeneotzat** jotzea.
- Historiaz kanpoko ikuspegi** unibertsalak eta homogeneizatzaileak bultzatzea.
- Genero-ikuspegia **gehigarritzat** hartzea, eta ez oinarritzako elementutzat.

Suposizioak egitea



- Narratiba konplexuak ekiditea eta emakumeen historia santuen eta bekatarien **kontakizun sinpleetara** murriztea.
- Emakumeen lorpenak **ezohikotzat** jotzea, benetan ezohizkoak diren egiaztatu gabe.
 - Emakumezkoen ekarpenak ezohikotzat jotzea eta arauak hausten dituztenak bakarrik aztertzea.
- Onartzea **ez dagoela ezer komunikatzeko**, informazioa topatu ez delako.
- Pentsatzea genero-ikuspegitik egindako ekintzak **emakumezkoentzako direla soilik**.

Idea asko ziurtzat jotzen ditugu: emakumeen betekizunak, non egon diren, zer gertakaritan parte hartu duten... Batzuetan, iraganari gaur egungo aurreiritziak egozten dizkigu; beste batzuetan, aldiz, baliteke sekula existitu ez den zerbait topatu nahi izatea. Dena dela, ezinbestean eduki behar dugu joera irekia, galdera berriak planteatzeko, eta zehaztasun zientifikoarekin konbinatu, emakumezkoak sekula egon ez diren mailan kokatzeko tentazioa ekiditeko.

Termino, adierazpen eta kontzeptu sexistak (nahi gabe) erabiltzea



- Emakumeen **izen propioa** ezkutatzea.
 - Izena bakarrik erabiltzea, izena eta bi abizenak erabili beharrean.
 - Jaiotzatiko abizena senarraren abizenarengatik ordezkatzea.
 - Bigarren abizena (amarena) ez aipatzea.
 - Emakumeak subjektu independente moduan karakterizatu beharrean emazte, alaba, ahizpa, ama, etab. moduan karakterizatzea.
- Emakume-izaerari** aipamena egitea etengabe.
- Emakume baten bizitzaren **inguruko gertakariei** garrantzi handiagoa ematea hark burututako ekintzei baino.
 - Emakumezkoen ekarpenak gizonezkoen ekarpenekin kontrajarriak edo gehigarriak diren aztertzea.
- Emakumezkoek kultur ondareari egindako ekarpenak karakterizatzeko **adjektiboak** erabiltzea, gizonezkoenetatik desberdintzeko.

Justifikazioak saihestea: «Emakumeak gehitu eta astindu»



- Jarduerak inprobisatzea**, aurre-hausnarketarik egin gabe.
 - Uste izatea jarduerari «emakumeak eta...» izenburua jartze hutsarekin genero-ikuspegia barne hartuta dagoela.
- Emakumeak protagonista izanik ere **genero-estereotipoak** betikotzen dituzten jarduerak proposatzea.

- Mezu nahasiak** ematea.
 - Segurutzat jotzea emakumeez hitz egitea nahikoa dela genero-ikuspegia ezartzeko.
 - Azaleko jarduerak sustatzea, ezagutza zabaltzeko eta pentsaerak aldatzeko inolako baliorik gabeak.
- Emakumeekin zerikusia duten ekintzak **une zehatzekin** lotzea. Emakumearen Nazioarteko eguna, kasu, eta urtean zehar beste aipamenik ez egitea.
- Ez desberdintzea** martxan jarritako **berdintasun-politikak** eta ikerketan, hezkuntzan, komunikazioan eta beste hainbat eremutan aplikatzen den **genero-ikuspegia**.

Hizkuntza ez-sexista ez da soilik ez-bitarrei edo bi generoei (hizkuntzak bereizten baditu) aipamena egitea. Izan ere, gizon-emakumeei buruz hitz egiteko eragatik ohartu behar gara genero-estereotipoak onartzen ditugula askotan, horiek transmititzea ekiditeko.

Ardatz estategikoak

a

Ikerketa sustatzea



Kultur ondarea interpretatzeko eta hedatzeko edozein ekimen egin aurretik, alor horren gaineko ikerlanak egin behar dira. Horregatik, funtsezkoa da lehenbiziko urrats horietatik genero-ikuspegia txertatzea, eta aztertutako ondasunei buruzko galdera berriak egitea, **zientzia oinarri izanik** betiere.

1. Administrazioak (tokikoak, eskualdekoak, nazionalak eta nazioartekoak) eta hezkuntza-komunitatea engaiatzea, emakumezkoen historiari buruzko **ezagutzak bultzatzeko**.
 - Genero-gaiei buruzko ikerketetarako **bekak eta sariak** sortzea.
2. **Metodologia anitza eta diziplina** artekoa erabiltzea.
 - **Sekzio arteko ikuspegia** erabiltzea.
3. **Ikerkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko** lankidetzak koordinatzea eta sustatzea.
 - **Tokiko konpromisoa** bultzatzea.
 - Ahozko **iturriei** probetxu ateratzea, narratiba desberdinak ezagutzeko.
4. Lankidetzan lan egitea, **ezagutza-iturriak zabaltzeko** eta ahots desberdinak eta **ikuspegi berriak** txerta daitezela sustatzeko.
 - Sortutako ezagutza **hedatzeko jarduera** kantolatzea.
 - Emakumeek burututako ikerketen **balio zientifikoa** aitortzea.




“Funtsezkoa da gure ezagutza-oinarria handitzea; ezagutza gehiagorik ezean, ez dugu jakinarazteko beste ezer izango”

—M.^a JOSÉ TORRECILLA GORBEA, *La Encartada Fabrika Museoa*
(Bizkaia, Euskal Herria, Espainia)

b

Profesionalizaziorantz aurrera egitea



Profesionalizazioak **eragin iraunkorra du**. Izan ere, profesionalizazioa da modan daudelako jorratzen diren arloak eta benetako eraldaketa sustatzen duten jarrerak bereizten dituen alderdia. Gainera, kultur ondarearen, gizarteratzearen, irisgarritasunaren eta berdintasunaren gaineko politiken norabidea ezartzen du.

1. Genero-ikuspegiari eta kultur ondarean ikuspegi hori aplikatzeari buruzko **prestakuntza zehatza** txertatzea, lanbide-kategoria guztietan.
2. Kultur ondarea generoaren ikuspegitik lantzen duten proiektuak **modu iraunkorren** sustatzea.
 - Kultur ondarearekiko jarrerak benetan aldatuko dituen diskurtso desberdina eta iraunkorra ezartzea.
 - Kultur ondarea genero-ikuspegitik jorratzen dituzten diziplina arteko jarduera zientifikoak eta profesionalak aldizka antolatzea (ahal dela, nazioarteko topaketak).
 - Kultur ondarearen arloan emakumeek izandako esperientziak hedatzeko eta emakumeak aitortzeko topaketa informalak (*Women's Coffee*) sustatzea.
 - Ahizpatasuna bultzatzea.




“Prestakuntzak parekotasunaz eta berdintasunaz haraindi joan behar du: gure diziplinak eta metodologiak zalantzan jarri behar ditu”.

—LILIANE I. CUESTA DAVIGNON, González Martí Zeramika eta Luxuzko Arteen Museo Nazionala (Valentzia, Espainia)

c

Hezkuntzaren garrantzia azpimarratzea



Kultur ondarearen barruan, **beste arlo eta diziplina batzuei baino balio gutxiago ematen zaio hezkuntzari**: ez da kasualitatea hezkuntza/bitartekaritza kulturalaren lanbidean gehienak emakume gazteak izatea. Kultur ondarea gizartea eraldatzeko baliabidetzat erabili nahi badugu, hartzai-leek haurrak, ikasleak eta familiak baino publiko zabalagoa izan behar dute eta ekintzak **biztanle-talde handiago batera bideratu** behar dira, hainbat alderdi kontuan izanik: adina, hezkuntza-maila, generoa, dibertsitate funtzionala, etab.

1. Kultur ondarearen barruan hezkuntza **helburu estrategiko** bilakatzea.
 - Ondareak gizartearen maila guztietan balioak transmititzeko duen ahalmenari probetxu ateratzea.
 - Edukiak publiko desberdinetara egokitzea.
 - Hausnarketa eta eztabaida sustatzea.
2. **Testuliburuetan** eta gidaliburuetan emakumezko egileen eta emakumezko mezenasen adibideak sartzea.
 - Emakumezkoen zein gizonezkoen inspirazio iturri izango diren erreferenteak txertatzea.



“Historia ez da iraganaren kontakizun aldaezina. Etengabe aldatzen den kontzeptu bat da, egungo testuinguruaren eragina jasaten, eta, era berean, testuinguru horiei eragiten die”.

—SARAH HOLLOWAY, Heritage Open Days (Ingalaterra)

d

Mezuetan eta formatuetan jartzea arreta



Generoa banakoen alderdi guztiei eragiten dien zeharkako alde da. Kultur ondarea **pentsamoldeak eta jokabideak aldatzen dituen eragile errektiboa** izan dadin eta gizartean eragin positiboa izan dezan, baliteke horren klasikoak eta formalak ez diren formatuak erabili behar izatea eta publiko desberdinen partaide-tza eta inplikazioa bultzatu behar izatea.

Kultur ekimen ia guztietan, generoaren ikuspegitik inklusiboa den hizkuntza erabiltzen dute dagoeneko. Hala ere, zenbaitetan, horrek ez du bermatzen edukiak androzentrikoak izango ez direnik. Sarritan, mezuak emateko modua politikoki zuzena da; baina, mezu horien muinari erreparatzen badiogu, izugarri baztertzai-leak direla ikusiko dugu. Ez du ezertarako balio narratiba desberdinak ezagutarazteak, mezuak patriarkala izaten jarraitzen badu eta emakumeekiko jarrera paternalista agertzen badu. Ildo beretik, ekintzek «emakumeei hitza emateaz» haraindi joan behar dute: ez da nahikoa emakumeak protagonistatzat dituzten esperientziak jasotzea eta biltzea, eta ezin daiteke esan mota horretako ekintzek berez genero-ikuspegia lantzen dutela. Urrunago doazen eta benetako aldaketak eragiten dituzten neurriak proposatu behar dira: **emakumeei hitza emateaz gain, luzaroan isildu dituzten emakumeei entzun behar diegu.**

Jada ez da nahikoa gauza bati pasibotasunez begiratzea eta informazioa jasotzea; kultur ondarea berdintasunaren arloan aldaketa positiboak sustatzen dituen tresna izatea nahi badugu, **jokabide eraldatzailea** eduki behar dugu ezinbestean.

1. **Sormen** handiko jarduerak bultzatzea.
2. **Formatu parte-hartzaileak** azpimarratzea.
 - Proposatu eta,aldi berean, gauzatu egiten diren ekintzei lehentasuna ematea.
 - Publikoarekiko elkarrekintza piztea.
3. Kultur ondarea hedatzeko programetarako **eduki digitalak** garatzea.
 - Sare sozialetako baliabideak kontuan hartzea (hariak, *storylines*, sarrerak...).
 - Eduki askeei eta Creative Commons lizentzia dutenei lehentasuna ematea.
4. **Tokiko komunitateekin lankidetz**a iraunkorra jorratzea eta ezartzea, berdintasunaren inguruan eta aurreiritzien kontra kontzientziatzeko.
 - Jokabideak eta pentsamoldeak aldatzea.
 - Konpromiso iraunkorra sustatzea.
 - Mitoak gezurtatzen saiatzea, herri edo eskualde baten oinarritzat hartzen badira ere.
5. **Hutsuneak** uztea, narrazioa osatugabe dagoela argi uzteko.
 - Gure ezagutza partziala dela ez ezkutatzea.
 - Hutsuneak betetzeko interesa adieraztea.
 - Etorkizunean aurkikuntzak egiteko bidea irekitzea.
6. **Publiko anitzei** zuzentzea beti.
 - Ekimenetan parte hartzen duten emakumeen iritziak entzutea, ordezkatuta eta interpelatuta sentitzen direla egiaztatzeko.
 - Publikoari ez iruditzea ekintzak emakumeei zuzentzen zaiela soilik: gizartearen sektore handietara berariaz interpelatzea.



“Interpretatzea informatzea baino gehiago da; lotura intelektualak eta emozionalak sortu behar ditu. Jakingura piztu eta ezagutzak hedatu behar ditu, baita jokabidea eta pentsamoldea aldatu ere”.

—AINTZANE EGUILIOR MANCISIDOR. Ondarearen Europako Jardunaldiak (Bizkaia, Euskal Herria, Espainia)

Ondorioa

56

Kultur ondare komunaren zatitzat har daitezkeen ondasunak hautatzean, generoak funtsezko rola izan du, eta oraindik ere badu. **Ustez «unibertsala» eta «neutroa» zen ondarearen eredu ilustratuaren ondorioz, emakumeak sistematikoki alboratuak izan dira kultura ulertzeko moduan, duela hamarkada gutxira arte.** Izan ere, kultur ondarea baloratzeko modua hainbat mendetan zehar garatutako gizarte-erakuntza baten emaitza da. Prozesu hori zalantzan jartzea eta unibertsaltasun eta neutraltasun horien azpian «gezur androzentrikoa» (hau da, Europan zentratutako ikuspegi maskulinoa) dagoela agerian uztea **akats kontzeptual bat zuzentzeko** eta gizartearen erdia bidegabeki bazter utzi izana konpontzeko modua baino ez da. Gainera, horrela, zientziaren arlo guztiek partekatzen duten korrontearekin bat egiten dugu. Izan ere, azken aldiotan, zientziaren arloak ikuspegi inklusi-boago batetik berrikusten ari dira.

Luze igaro da emakumeen gaineko ikasketak martxan jarri zirenetik. Lehenbiziko ekimenek arazoa ikusaraztea lortu zuten. Alabaina, emakumeen gaineko ikasketak berezko diziplina bilakatu zirenean, emakumeek ezagutza-arloetan egindako ekarpenak gauza bereizitzat hartzen jarraitu zuten. Bada genero-ikuspegia zeharka eta modu integratuan txertatzeko ordua, horrela baino ez baitugu gure kultur ondarearen ikuspegi osatua lortuko.

Liburu Zuriak **zalantzan jartzen du onartutako kontakizuna** (hau da, «onartua» eta «autoritateak emana»), **sistematikoki emakumeak** eta haien nahiak, interesak eta asmoak (nahi izateko, interesatzeko eta irrikatzeko gaitasuna zuzenean ukatzen ez badie ere) **bazter uzten dituen**, eta, ez, ordea, herritarren erdiak duen balioa.

57

Iruzkin gakoak

1/ Gizartearen erdiari baino gehiagori dagokio emakumeek kultur ondarean egindako ekarpenak ikertzea: Liburu Zuri honen aztergaiek eta gogoetek sistema oso bat hartzen dute barne, eta zehaztasun zientifikoa eta ezagutza hobetzeko grina dituzte ardatz.

2/ Genero-ikuspegia txertatzeak kultur ondarearen diziplinaren oinarriak osorik zalantzan jartzen, kritikatzin eta eraldatzen laguntzen digu, eta Europako ondare komunaren ikuspegi osatuagoa eta inklusiboagoa ematen digu.



Iruzkin gakoak

3/ Kultur ondarea interpretatzeko modu berria aurkitu behar dugu, egitura patriarkalak iraunarazi ordez, eta modu berri horrek emakumeentzat eta gizonentzat zuzenagoa den gizarte baten berezko balioak transmititu behar ditu.

4/ Lau eremu hauetan jarri behar dugu arreta: kultur ondarearen gaineko ikerketa, sektorearen profesionalizazioa, gizartearen hezkuntza eta kultur ondarearen interpretazioaren mezuak eta formatuak.



Eranskina: Jardunbide egokien zenbait adibide

Liburu Zuri honetan, ondarea genero-ikuspegitik interpretatzeko bideari ekin dioten zortzi eredu aurkezten ditugu, inspiraziorako balio dezaketenak. Programa handiak koordinatzen dituzten esperientziak dira, baina, era berean, ingurua eraldatzea eta eremu zehatz batean eragin positiboa izatea helburu duten jarduerak ere badira. Horietako zenbaitek historian, artean, politikan edo haien lanbideetan garrantzi handikoak izan diren emakumeak dituzte ardatz. Beste batzuek, aldiz, ekarpen kolektiboak jorratzen dituzte, eta, beraz, ez dute izen zehatzik aipatzen. Aukeratutako esperientziak askotarikoak dira, eta hainbat estatu biltzen dituzten mugaz gaindiko planteamenduak nahiz tokiko, nazioko eta eskualdeko ekimena zehatzak hartzen dituzte barne: bisita gidatuak, konferentziak, erakusketak, ibilbideak, irakurraldiak, antzezpenak eta genero-ikuspegian oinarritutako beste hainbat jarduera. Oso programa desberdinak diren arren, helburu bera dute: emakumeen kultur ondarearen gaineko hezkuntza, prestakuntza,

transmisioa, hedapena...; hitz gutxitan, emakumeen kultur ondarea gizarteratzea.

Administrazio publikoek, herri-elkarteek zein babesle pribatuek abiarazi dituzten tokiko, nazioko eta eskualdeko ekimenak dira, eta horiei esker, jardunbide egokien europar sarea eraikitzeke lehen urratsa eman dugu. Sare horren helburu nagusia izango litzateke elkarrizketa sortzeko, erantzukidetasunak ezagutzeko eta lankidetzaz ezartzeko topagunea edo eremu birtuala sortzea, etorkizunean elkarlanean aritzeko aukera emango digun espazio ireki bat, alegia. Hala, elkarlan horietatik ikasteko eta Liburu Zuri honen hurrengo edizioak hobetzeko aukera izango genuke.

**Hemen, hasiera batean
Women's Legacy sarea osatzen
zuten proiektuetako zortzi bildu
ditugu. Horien parte-hartze eta
esperientzietatik atera dira Liburu
Zuri honetako ondorioak.**



2 Journées du Matrimoine

+Non?

Île-de-France (Frantzia)

+Nork?

HF Île-de-France

+Noiz?

2014az geroztik

+Harremanetarako

•Emmanuelle Cordoliani
contact@hf-idf.org

+Informazio gehiago

www.lematrimoine.fr



“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, emakumeen ondarea interpretatu eta balioetsi behar da. Hortaz, *Patrimoine* eta *Matrimoine* elkarren osagarriak dira, eta gure kultur ondare komuna, mistoa eta berdinzalea egituratzen dute”.

Patrimoine-ak (aitarengandik jasotakoa) eta *Matrimoine*-ak (amarengandik jasotakoa) osatzen dute gure kultur ondarea. *Matrimoine* nozioa birgaituz, lapurtu diguten kultur ondarearen zati bat berreskuratzen dugu, eta gure kultur ondarean bestelako sormen-lanak aurkitzen ditugu: emakumezko idazleena, musikagileena, ipuin-kontalariena, pailazoena, artista plastikoena, musikariena...

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, emakumezko artistek eta intelektualek utzitako ondarea interpretatu behar dugu, garai eta arte-diziplina guztietako emakume anoni-moek eta pertsonaia garrantzitsuek utzitakoa, alegia. 2014an, HF Île-de-France elkarteak *Journées du Matrimoine* jardunaldiak abiarazi zituen, artista eta sortzaile horien izenak, eta batez ere, haien lanak ezagutarazteko. Gorde eta transmititu behar den ondare artistikoa eta historikoa den arren, gaur egun gutxik ezagutzen dute, eta batzuetan ezikusiarrena ere egiten zaio.

Ondarearen Europako Jardunaldiekin (*Journées du Patrimoine*) batera eta osagarri, *Journées du Matrimoine* egiten dira, emakumeek kultur ondarean izandako presentzia aldarrikatzeko. Urtero, elkarteak egitura artistikoei eta herritarrei zuzendutako proiektu-deialdia egiten du. Gero, ekimen garrantzitsuenak hautatzen ditu, ekitaldia koordinatzen du, eta horren berri emateaz arduratzen da.

3 Extraordinary Women

+Non?

Ingalaterra

+Nork?

Heritage Open Days

+Noiz?

2018

+Harremanetarako

•Sarah Holloway
sarah.holloway@
heritageopendays.org.uk

+Informazio gehiago

www.heritageopendays.
org.uk/about/history/
extraordinary-women



“Eguneroko bizitzan eragina izan duten, alor guztietan aldaketak eragin dituzten eta aitortu beharreko ondarea utzi diguten emakumeak (langileak, aitzindariak, amak, amonak, ahizpak, alabak eta lagunak) ezagutzea, aitortzea eta ezagutaraztea da gure helburua”.

Extraordinary Women

2018an, *Representation of the People Act* (Herri Ordezkaritzaren Legea) delakoaren mendeurrena izan zen. Lege horren bidez, zenbait emakumek bozkatzeko eskubidea lortu zuten Ingalaterran. Urteurrenaz baliatuta, ekitaldi ugari antolatu zituzten. Ekin-tza horietako asko Erresuma Batuko Parlamentuak bultzatutako *Vote 100* egitasmoaren baitan gauzatu ziren, eta Parlamentuaren ekimen horren ondorioz, hain zuzen, erabaki zuten *Extraordinary Women* (Aparteko Emakumeak) izango zela 2018ko *Heritage Open Days* jardunaldien gaia.

Horrek emakumezkoen sufragioaren historiaz haraindi begiratzeko aukera eman zuen, bai eta ikuspegia zabaltzekoeta emakumeek historian zehar egindako ekarpena aitortzeko ere. Komunitateari galdetu zioten nor omendu nahi zuen, eta, horri esker, aski miretsiak diren pertsonaia ezagunez gain, bestelako emakumeak ere txertatu ziren. Emakume horiek guztiek inspiratu eta liluratu gaituzten istorio harrigarriak dituzte: distantzia luzeko hainbat errekor hautsi zituen Violette Cordery lasterketa-pilotua; osasun publikoaren aldekoa zen eta ehunka kolera-gaixoren bizia salbatu zuen Kitty Wilkinson, etab. Emakume horiekin guztiekin (140 baino gehiago), horma-irudia osatu zuten. Irudi horretan, zenbait hutsune utzi zituzten nahita, historian zehar galdu diren edo oraindik ere aitortzen ez diren emakumezkoen ekarpenak islatzeko.

4 Marija Auersperg Attems Project

+Non?

Eslovenia

+Nok?

Arboretum Volčji Potok

+Noiz?

2018



+Harremanetarako

•Mateja Račevski
mateja.racevski@arboretum.si

+Informazio gehiago

[www.arboretum.si/arboretum/
projekti-in-sodelovanja/
projekt-cvetoca-pot-marije-
auersperg-attems/](http://www.arboretum.si/arboretum/projekti-in-sodelovanja/projekt-cvetoca-pot-marije-auersperg-attems/)



“Istorio zoragarria garatu dugu Marija Auersperg Attems-en margolanen bitartez. Diziplina anitzeko ikerketaren garrantzia islatzen du. Artistaren sormen-ondarea ulertzen laguntzen digun testuinguru konplexuagoa eta logikoagoa sortu dugu”.

2018an, Kultur Ondarearen Europako Urtea dela medio, Esloveniako Galeria Nazionalarekin elkarlanean aritu ginen, Arboretum Volčji Potok parkean erakusketa antolatzeko. Parkean aurkeztutako 36 artelanen artean, bisitariak eta langileak Marija Auersperg Attems (Graz, 1816-1880) margolariaren lanekin bereziki txundituta geratu ziren, zehaztasun handiko artista baitzen. Haren natura hiletan, nabaria da naturalismoa, eta behatzaile bikaina zela erakusten digute. Agerikoa da egileak botanikaz zekiela eta margolanetan erabiltzen zituela ezagutza horiek, eta ziurrenik, lorategien plangintzan ere bai.

Proiektuaren helburua da beste administrazio publikoekiko lankidetzaren handitzea, eta publiko profesionalaren eta orokorraren interesekoa izango den diziplina anitzeko ekimena antolatzea. Halaber, arte-historiaren, lorategien ondarearen, arkitura-ondarearen eta baratzezaintzaren eremuetako ezagutzak lotu nahi ditu. Eta, horretarako, Marija Auersperg Attems-ek margotutako loreak erabiltzen dituzte ildo nagusizat. Margolariak lorez osatutako natura hilak eta formatu txikiko barnealde-eszenak margotu zituen, eta bizitzako azken urteetan, argazkigintzan ere aritu zen.

5 WikiEmakumeok

+Non?

Euskal Herria (Espainia)

+Nork?

WikiEmakumeok

+Noiz?

2015az geroztik

+Harremanetarako

•Mentxu Ramilo Araujo

mentxu@gmail.com

•Sonia Francisco Martín

sofran18@gmail.com

•Marisa Barrena Larruzea


barrena.larruzea@gmail.com

+Informazio gehiago

bit.ly/wikiemakumeok



“Wikipediak leku atsegina izan behar du. Emakumeek ongietorriak direla sentitu behar dute, eta galdetzeko, errazteko, duda egiteko eta editatzen ikasteko laguntza eta segurtasuna dutela, edizioan eskarmentu handiagoa dutenek estutu eta zalantzan jartzen dituztela sentitu gabe”.



WikiEmakumeok

WikiEmakumeok Wikipedian biografiak, artikuluak eta edukiak genero-ikuspegitik sortzea, hobetzea eta itzultzea helburu duen ekimen bat da, emakumeek kulturaren, zientzian, teknologian eta kirolan egindako lana hedatzeko asmoz.

Wikipedian editatzeko ezagutzak eskuratu nahi dituztenei eta emakumeen biografiak sortzeko eta hedatzeko nahiz emakumei buruzko artikuluak idazteko eta hobetzeko interesa dutenei zuzentzen zaie. Ezagutza askeak genero-ikuspegitik eraikitzeak aukera ematen duen topagune atsegina baten bila dabiltzan pertsona guztiei egiten diete harrera.

Izan ere, Wikipedian ere bada genero-arrakala: hamar biografiatik bi baino ez dira emakumeenak, eta hamar editoretatik bat baino ez da emakumea. Horregatik, WikiEmakumeok ekimenak emakumeak gaitzat harturik eta genero-ikuspegi kontuan izanik editatzen duten pertsonen kopurua areagotu nahi du, eta batez ere, emakumezko editoreen kopurua. Modu horretara, exigentziarik gabeko topagunea sortu nahi dute, parekoen aholkua jasotzeko eta emakumezko wikipedialarien erronkak eztabaidatzeko. Emakumei buruzko artikuluak identifikatu, biografien kalitatea eta edukiak hobetu, eta edizio-taldeak antolatzen dituzte, lankidetzan aritzeko. Emakumei eta emakumeen historiari buruzko artikuluak jorratzen dituzte gehienbat.

Helburua da elkarrekin ikastea eta sarean lan egitea, Wikipedian erreferentziazko emakumeak ikusarazteko.

6 Emakumeak eta genero berdintasuna

+Non?

Bizkaia (Euskal Herria, Espainia)

+Nork?

La Encartada Fabrika Museoa

+Noi?

2008az geroztik

+Harremanetarako

•M.^a José Torrecilla Gorbea
maria.jose.torrecilla@bizkaia.eus

+Informazio gehiago

www.bizkaikoa.bizkaia.eus/laencartada



“La Encartada emakumeak industria-lanetan sartzeko prozesuaren eta lanean ari ziren emakumeen baldintza zehatzen adibidea da”.

La Encartada Fabrika-Museoa ehungintza-lantegia izan zen (1892-1992), eta museoa da 2007az geroztik. Emakumeek presentzia eztaba daezina izan dute, lekuaren muinean (eskulan gehiena emakumeak ziren) zein egituran (egungo langileak eta lankidetzak).

Kontuan izanik fabrikaren edukiak «emakumezkoen begietatik irakurtzen» direla eta museo bilakatzean hartu behar zuen esanahia, ezinbestekoa zen mezua genero-ikuspegitik interpretatzea eta transmititzea. Dimentsio horretan sakonduz, oroimena berreskuratzeko prozesuaren protagonista bilakatzen dira emakumeak, eta izen-abizenak dituzten emakumeekin osatzen dugu kontakizuna: nola lan egiten zuten, zer lanpostu zituzten, amen eta emazteen rolak, haien bizipenak... eta, jakina, lankideenganako adiskidetasuna eta aisialdia. Zati txiki eta anonimo horietatik abiatuz, fabrikara lotuta bizi ziren emakumeen istorioak berreraikitzen ditugu, eta eredu konplexu eta adierazgarriak lortu.

Ezagutza horrek gure ondarearen barneko mezua hobeto gizarteratzen eta Berdintasunerako Hezkuntzaren programa edukiz hornitzen ahalbidetzen digu. Programa horrek gizarte zuzenagoa eta bidezkoagoa lortzeko jarduerak eta ekintzak hartzen ditu barne. Lau dira azpimarratzekoak:

1. Bisita tematikoa – Gizonezkoen lanak, emakumezkoen lanak
2. Unitate didaktikoa – Berdinak al gara?
3. Bisita antzeztua – Fabrika 1918an
4. Familientzako tailerra – Zer egingo zenuke zuk duela 100 urtetako fabrikan?

7 Relecturas

+Non?

Valentzia (Espainia)

+Nork?

González Martí Zeramika eta Luxuzko Arteen Museo Nazionala, Universitat de València eta Valentziako beste museo batzuk.



+Noiz?

2017az geroztik

+Harremanetarako

•Liliane I. Cuesta Davignon
liliane.cuesta@cultura.gob.es

+Informazio gehiago

relecturas.es/proyecto/



“Relecturas ekimena museoaren eta haren ingurunearen arteko elkarrizketa etengabea da. Arte Ederretako eta Etnografia eta Historiako hainbat museo lotzen dituen kultur ibilbidea proposatzeaz gain, Valentziako hiria eta inguruko udalerririk ezagutzeko aukera ematen digu”.

Relecturas

Generoak pertsonekin lotutako zenbait ezaugarri biltzen ditu (rolak, jarrerak, ezaugarri fisikoak, portaerak, sexualitatea, etab.), eta ezaugarri horiek sexuaren arabera esleitu ohi dira. Hala, banakoak kategoriatan zehaztuz sailkatzeko sistema bat osatu da. Alabaina, generoa ez da sortzetikoa, ezta estatikoa ere.

Genero-ikuspegitik antolatutako museo-ibilbideen bidez, Relecturas ekimenak hainbat gai jorratzen ditu: feminitatea, maskulinitatea, estereotipoak, esleitutako rolak... Valentziako Generalitateak diruz laguntzen du egitasmoa, Valentziako Unibertsitatearen ikasketa-programa baten bitartez. Helburua da ekimenean parte hartzen duten museoetako bildumak ikuspegi desberdin batetik aurkeztea, emakumeen rolari, mito patriarkalei eta emakume eta gizonen arteko desparekotasun sozialari buruz hausnartzen duten diskurtso berriak sortzeko.

Museo horiek bisitatzean, historiak eremu horretan izandako eraginari buruz gogoeta egiten dugu, eta jarrera horiek nolabait sustatzen ote ditugun zalantzan jarri. Relecturas egitasmoak informazio-maila desberdinak barne hartzen dituzten bisitak proposatzen ditu, pertsona bakoitzak erabaki dezan zer jakin nahi duen.

8 MoMoWo

+Non?

Turín (Italia)

+Nork?

Politecnico di Torino–POLITO

+Noiz?

2018az geroztik.

+Harremanetarako

•Emilia Garda

emilia.garda@polito.it

•Caterina Franchini

caterina.franchini@polito.it

•Alessandra Renzulli

alessandra.renzulli@uniroma1.it

•Giuliana Di Mari

giuliana.dimari@polito.it

+Informazio gehiago

www.momowo.eu



“Emakumeen rola aztertzeak, diseinuaren arloko profesionalen historiaren eta ondarearen ikuspegi zabalagoa emango digu, eta Europako kultur aniztasuna sustatu eta babestuko du”.

MoMoWo

Europa osoa eta diziplina anitz barne hartzen dituen ikuspegi batetatik abiatuta, MoMoWo proiektuak aztertu egiten ditu Europako arkitekturaren eta diseinuan aitzindari izan diren emakumeek gainerako emakumeen lorpen profesionalak hobetzean egindako ekarpenak. Helburua da emakumeen kultur ondarea partekatzeari, «historian ezkatatuta» egon baita hein handi batean. Izan ere, proiektuaren sortzaileek jakin badakite publikoak ez duela emakumeen sormen-gaitasuna eta emakumeek eremu akademikoan zein profesionalean izandako lorpenak behar beste aitortzen.

Mugimendu Modernoa da egitasmoaren ardatza: kulturalki interes handiko garaia da, haustura politikoa eta soziala izan zelako, eta emakumeen askapenean, mugarri historikoa ere bai. Horatik abiatuz, emakumeek barne-diseinuan, diseinu industrialean, arkitekturaren, hirigintzan, paisajismoan, argazkigintza arkitektonikoan eta ingeniariaren zibilean 1920az geroztik egindako ekarpenetan jartzen dute arreta.

Jarduera guztiak eragin iraunkorra sortzeko diseinatuta daude. Horretarako, Europako Datu-basea (1918-2018) sortu dute, emakumezko arkitekto, ingeniari eta diseinatzaileen bizitzari eta lanari buruzko ezagutzak sistematizatu eta hedatzeko, diziplina anitzeko ikuspegi konparatzaile batetik. Asmoa da iragana eta oraina lotzen dituzten zubiak eraikitzea, eta horiek etorkizuneko emakumeekin ere lotzea.

Erreferentziazko argitalpenak

UNESCOren agiriak

RÖSSLER, M. (2015) ¿Patrimonio Mundial con perspectiva de género? Análisis de la aplicación de la Convención de la UNESCO sobre el Patrimonio Mundial (1972). Igualdad de género, patrimonio y creatividad. Argentina:UNESCOk babestutako Giza Eskubideak Sustatzeko Nazioarteko Zentroa.

UNITED NATIONS EDUCATIONAL, SCIENTIFIC AND CULTURAL ORGANIZATION – UNESCO, arg. (2007). Gender perspectives on cultural heritage and museums. Museum International, LIX liburukia, 4. zk., 2007ko abendua.

UNITED NATIONS EDUCATIONAL, SCIENTIFIC AND CULTURAL ORGANIZATION – Unesco, arg.(2014). Gender Equality, Heritage and Creativity. Paris: UNESCO [hemen eskuragarri: castellano].

UNITED NATIONS EDUCATIONAL, SCIENTIFIC AND CULTURAL ORGANIZATION – Unesco, arg. (2015). Intangible Cultural Heritage and Gender. Paris: UNESCO.

Europar Batzordearen eta Kontseiluaren agiriak

BENNOUNE, K. (2018). Informe sobre universalidad, diversidad cultural y derechos culturales. Geneva: Nazio Batuen Goi Ordezkaritzaren Bulegoa, 2018ko uztailaren 25a.

EUROPAR KONTSEILUA (2005). Convenio marco del Consejo de Europa sobre el valor del patrimonio cultural para la sociedad. Itsasargia: Europar Kontseilua.

PAPE, Pierrette (datarik gabe). Gender Equality. What Does Cultural Heritage Got to Do With It? Estrasburgo: Europar Kontseilua.

Bestelako nazioarteko erakundeen agiriak

FRIMAT, S., GRUMET, A., ARTHUR, B. eta GUIRAUD, C. (2018). Inégalités entre les femmes et les hommes dans les arts et la culture - Acte II: après 10 ans de constats, le temps de l'action. Paris: Haut conseil à l'égalité entre les femmes et les hommes, 2018ko otsaila.

SCHALKWYK, J. (2000). Questions about culture, gender equality and development cooperation. Ottawa: Canadian International Development Agency.

SCHIEBINGER, L. eta KLINGE, I. (2013). Gendered Innovations. How Gender analysis Contributes to Research. Brusela: Directorate General for Research & Innovation. European Comission.

SHAHEED, F. (2012). Informe sobre la igualdad de derechos culturales. Geneva: Nazio Batuen Goi Ordezkaritzaren Bulegoa, 2012ko abuztuaren 10a.

PUJAR, S. (2016). Gender Inequalities in the cultural sector. Brusela: Culture Action Europe, 2016.

WOLFF, L. (2017). Observatoire de l'égalité entre femmes et homes dans la culture et la communication. Paris: Ministère de la Culture et de la Communication. Département des études, de la prospective et des statistiques.

Kultur ondarea balioestea, kontserbatzea eta interpretatzea

BOUNIA, A. (2012). Gender and material culture. Museum & Society, 10. zk., 60-65 orr.

CHADWICK, W. (1990) Mujer, arte y sociedad. Bartzelona: Ediciones Destino, 1996.

COLELLA, S. (2018) «Not a mere tangential outbreak»: gender, feminism and cultural heritage. II Capitale culturale, 18. zk., 251-275 orr.

DUFRÈNE, B. (2014) La place des femmes dans le patrimoine. Revue française des sciences de l'information et de la communication, 4.

GRAHN, W. eta WILSON, R., arg. (2018). Gender and Heritage: Performance, Places and Politics. Abingdon: Routledge.

LERNER, G. (1986). La creación del patriarcado, Iruñea: Katakarak, 2018.

MACDONALD, S. (2009). Difficult Heritage. Londres eta New York: Routledge.

QUIROSA GARCÍA, V. eta GÓMEZ ROBLES, V. (2010). El papel de la mujer en la conservación y transmisión del patrimonio cultural. Asparkia, 21. zk., 2010, 75-90 orr.

READING, A. (2015) Making Feminist Heritage Work: Gender and Heritage. En WATERTON, E.; WATSON, S., arg. The Palgrave Handbook

of Contemporary Heritage Research. Londres: Palgrave Macmillan UK, 2015, 397-413 orr.

SHORTLIFFE, S. (2015). Gender and (World) Heritage: The Myth of a Gender Neutral Heritage. En BOURDEAU, L., GRAVARI-BARBAS, M. eta ROBINSON, M., arg. World Heritage, Tourism, and Identity: Inscription and Co-Production. Londres: Routledge, 2015, 107-120 orr.

SMITH, L. (2006) The uses of heritage. New York:Routledge.

SMITH, L. (2008). Heritage, Gender and Identity. n GRAHAM, B. eta HOWARD, P. (arg.), The Ashgate Research Companion to Heritage and Identity (159-178 orr). Farnham:Ashgate Publishing.

VIDO, S. de (2017). Mainstreaming gender in the protection of cultural heritage. Sapere l'Europa, sapere d'Europa, 4. zk., 2017, 451-467 orr.

Generoa eta museoak

MARTÍNEZ LATRE, C. (2010). ¿Tiene sexo el patrimonio? museos.es, 5-6 zk., 2009-2010, 138-151 orr.

PRADOS TORREIRA, L. eta LÓPEZ RUIZ, C., arg. (2017). Museos arqueológicos y género. Educando en igualdad. Madril: Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren argitaletxea.

QUEROL, M.^a A. eta HORNOS, F. (2011). La representación de las mujeres en los modernos museos arqueológicos: estudio de cinco casos. Revista Atlántica-Mediterránea, 13. zk., 2011, 135-156 orr.



WOMEN'S LEGACY